
EUSKAL HERRIKO LAGUNAK MENDEBALDEKO SAHARAKOEKIN BAT.

SAHARA BIZI



SAHARAREN ALDEKO ADIERAZPENA

Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenean, Euskal Herriko lagunak mendebaldeko Saharakoekin bat elkarreak Lasarte-Oriako udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

- 1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako eraso salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.
- 2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzeko duen misio bakarria izateari utzi diezaion.
- 3.-Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.
- 4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen lege kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudenzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenarekin bat etorriz, 2019ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera Lasarte-Oriako udaletxean zintzilikatzea adosten du.

8.-Aipatu den urteurrena dela eta, udalbatza honek bat egiten du 2019ko Otsailaren 27an arratsaldeko 19.30-etan Lasarte-Oriako Udaletxe aurrean, Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin bat deitutako elkarretaratzearekin, "Maroko Saharatik at Independentzia Mendebaldeko Sahararentzat" lemapean.

Adeitasunez.

Lasarte-Orian, 2019ko Urtarrilaren 21ean

Euskal Herriko lagunak mendebaldeko Saharakoekin bat.